

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



IMANOL GARCIA

ORREAGAKO GUDUAREN 1.200. URTEURRENEAN

Oso irudi ezaguna da hau. Karteletan, liburuetan, ezin konta ahala euskarritan eta hainbat argazki oin dituela erreproduzituta, Euskal Herriko historia hurbi-leko irudi ikonikoa da. Era berean, irakurketa asko ditu. Argazkia 1978ko abuztuaren 15ean egina da, Auritzen, euskaldunek Orreagan Karlomagnoen armada garaitu zuten guduaren 1.200. urteurrena ospatu zen egunean. Ekitaldietarako deialdia Ibañeta Batzordeak egin zuen. “Egin” egunkariak bere azalean honela zioen: «...independentziaren aldeko borrokaren lekukotzarik argienetakotzat jotzen den horretan Karlomagnoen tropak garaitu zituzten baskoiei egindako omenaldia izan nahi zuen». Milaka pertsonak parte hartu zuten Aurizko zelaian egin ziren ekitaldietan. Kronikaren arabera, zazpi herrialdeetatik joandako ehunka auto eta 70 autobus baino gehiago izan ziren. Imanol Garcia bilbotarraren irudia “Euskadi 1977/1987” argazki liburuaren azalean agertu zen. Liburu hura Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenean argitaratu zen eta hartan Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako 20 fotokazetarik hartu zuten parte. Imanol Garciak urte haietan “Egin”, “Askatasuna”, “Punto y Hora de Euskal Herria” eta “Zeruko Argia” hedabideentzat lan egin zuen, besteak beste.